



ESKUALDEKO ETXEBIZITZA BULEGOA ABIAN JARTZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Oiartzunen, azken sinadura elektronikoaren datan

BILDUTA

- AIZPEA OTAEGI MITXELENA, alkate gisa, ERRENTERIAKO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz.
- MIKEL ARRUTI SALABERRIA, alkate gisa, LEZOKO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz.
- JOANA MENDIBURU GARAIAR, alkate gisa, OIARTZUNGO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz.
- TEO ALBERRO BILBAO, alkate gisa, PASAIKO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz.
- FERNANDO NEBREDÁ DÍAZ DE ESPADA, OARSOALDEA, S.A. (aurrerantzean, AGENTZIA) eskualdeko garapen agentziako zuzendari kudeatzaile gisa.

Agertutako pertsonak adierazi dute beren ahalmenak ez direla ezeztatu, mugatu edo eten, eta ordezkaturako erakundearen gaitasun-baldintzak ez direla aldatu.

Agiri hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

- I. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan ezartzen duenez, euskal udalerriek, besteak beste, honako eskumen propio hauek dituzte:
 - “Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa”.
 - “Hirigintza-arloko antolamendua, kudeaketa, egikaritzea eta diziplina”.
 - “Tokiko garapen ekonomiko eta soziala”.
- II. Euskadiko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak zioen azalpenean adierazten duenez, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren espirituari egokituta, “toki- eta lurralde-administrazioei esleitzen dizkie etxebizitzaren eta ondare eraikiaren arloko eskumenak, eta erakundearen arteko lankidetza sustatzen du”.

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 2a 10tik



- III. Ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 7. artikulua ezartzen du, halaber, administrazio-azotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsona guztiek dutela etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat izateko eskubidea, eta toki-erakundeek eta etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten gainerako erakunde publikoek herritarren etxebizitza-eskubidea betetzen dela zainduko dutela.
- IV. AGENTZIAren estatutuen 2. artikulua arabera, haren helburua eskualdearen garapen sozioekonomikoa eta biztanleen bizi-kalitatea sustatzea da, eta, horretarako, AGENTZIAk esperientzia handia du etxebizitzaren arloan, batez ere ASAP programaren bidez.
- V. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Agindu bidez, Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050 onartu zen. Agenda hori Nazio Batuen Hiri Agenda Berrian oinarrituta egin zen, eta Garapen Jasangarriko Helburuen 11. zenbakiarekin lerrokatuta dago. Haren helburua hiri inklusibo, seguru, erresiliente eta jasangarriak lortzea da, inor atzean gera ez dadin. Eskualdeko Etxebizitza Zerbitzuaren helburua aipatutako Agendarekin lerrokatzea da.
- VI. AGENTZIAk, Oarsoaldeko (SUR) Birgaitzeko Hirigintza Sozietatea den aldetik, ibilbide luzea darama hiri-birgaitzerako zerbitzu integrala eskaintzen, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeak dakartzan abantailez herritarrak kontzientziatzeko eta eraikinak eta etxebizitzak birgaitzen dituzten auzo-komunitateei edo jabeei edo maizterrei laguntzeko.
- VII. AGENTZIAren 2026rako Urteko Kudeaketa Planean 60.005,75 euroko aurrekontu-partida aurreikusi da Eskualdeko Etxebizitza Bulegorako, eta Hitzarmen honen ERANSKINEAN aurreikusitako zerbitzuen zati bat hartuko du bere gain. Beraz, osatu egin behar da, aipatutako zerbitzua erabat emango dela bermatzeko.
- VIII. Agentziaren Administrazio Kontseiluak, 2026ko martxoaren 16an, Eskualdeko Etxebizitza Bulegoak eman beharreko zerbitzua birdimentsionatzea onartu zuen, Hiri Agendarekin lotutako beste eginkizun batzuk ere barne har zitzan, besteak beste, "Oarsoaldea Bidean" proiektuaren koordinazioa eta jarraipena. Proiektu hori EDIL (Tokiko Garapen Integraturako Estrategiak) Europar Batasunaren programaren barruan dago, eta FEDER funtsek finantzatzen dute. Horren ondorioz, alde batetik, AGENTZIAri kudeaketa-gastuei dagokien programan aurreikusitako partida esleitzea onartu zen, hau da, 192.453,94€ proiektuaren egikaritze-aldi osorako, hau da, 2026rako 28.088,49 €-ko ekarpen zenbatetsia. Bestetik, 2026ko Kudeaketa Planari 31.452,66 €-ko ekarpen osagarria egitea. Zenbateko horiek behar bezala eguneratuko dira hurrengo ekitaldietarako, onartzen diren irizpideen arabera. Aurreko guztiaren ondorioz, eskualdeko etxebizitza-bulegoa finantzatzeko aurreikusitako ekarpena 2026an 119.546,9 €-koa da. Dena dela, proiektuaren hasiera oraindik zehazteke dagoenez, hitzarmenean jasotako zenbatekoak 2026 urte osoko kostuen aurreikuspena da. Ondorioz, kostu errealak hitzarmenaren azken ordainketan egokituko dira, proiektuaren hasiera eta teknikarien

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 3a 10tik



kontratazioaren dataren arabera. 2026 urte osorako aurreikusitako kostua ondorengo taulan zehazten da:

2026					
	Kanpo finantzaketa	Errenteria	Lezo	Oiartzun	Pasaia
Etxebizitza bulegoa (2026 Aurreikusia)		24.002,30 €	12.001,15 €	12.001,15 €	12.001,15 €
Oarsoaldea bidean eta proiektu berriak (2026an ekarpen gehigarria)	28.088,49 €	12.581,07 €	6.290,53 €	6.290,53 €	6.290,53 €

- IX. Etxebizitza dela kezka nagusia eskualdeko gazte gehienentzat, eta bertaratutako udalerriak bat datozela erakundeen arteko kobernanta eta etxebizitza politiken lerrokatzea funtsezkoa dela eskualdeko bizitoki larrialdiari erantzuteko.
- X. Sinatu duten udalerriek, beren lurralde-eremuetan etxebizitzaren arloko hainbat neurri ezartzen ari diren arren (etxebizitza-planak, hirigintza-planak, etxebizitza sozialen sustapenak, eta abar), beharrezkotzat jotzen dute eskualde-ikuspegia eta Eskualdeko Etxebizitza Bulegoa sortzea, jendearentzako zerbitzu ibiltaria izango duena.
- XI. Aurreko guztiaren ondorioz, bertaratutako erakundeek beharrezkotzat jotzen dute lankidetza-hitzarmen bat ezartzea, klausula hauen arabera:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA. HITZARMENAREN XEDEA

1. Hitzarmen honen xedea da AGENTZIAren eta Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia udalerrien arteko lankidetza arautzea, Eskualdeko Etxebizitza Bulego bat sortu eta ezartzeko, jendearentzako arreta ibiltaria izango duena. Bulego horrek bere gain hartuko ditu Hitzarmen honen ERANSKINEAN aurreikusitako zerbitzuak, bai etxebizitzaren arloan, bai hiri-agendaren arloan, 2026rako Agentziaren urteko Kudeaketa Planean aurreikusitakoa osatuz.

2. Hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira, hala badagokio, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren arabera alderdiek sinatzen dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak. Eragiketa horiek hitzarmen honetatik independenteak izango dira, eta aipatutako legerian ezarritako prozedura eta baldintzen arabera egingo dira.

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 4a 10tik



BIGARRENA. IRAUPENA

1. Hitzarmen honen hasierako indarraldia 2026ko eta 2027ko ekitaldietakoa da. Hala ere, alderdiek, ados jarrita, berariaz luzatu ahal izango dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h artikuluan ezarritako mugarekin.
2. Hala ere, 2027ko ekitaldiari eta etorkizuneko ekitaldiei dagozkien konpromiso ekonomikoen eraginkortasuna baldintzatuta geratzen da, ekitaldi horietarako udal sinatzaileen aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende.
3. Hurrengo ekitaldiren batean aurrekonturik ez badago, alderdi sinatzaileek hitzarmen hau azkentzea edo hitzarmenaren baldintzak aldatzea erabakiko dute.

HIRUGARRENA. AGENTZIAK HARTUTAKO KONPROMISOAK

AGENTZIAK konpromisoa hartzen du eskualdeko udalerriekin lankidetzan aritzeko, 2026ko Urteko Kudeaketa Plana gauzatzeko, ekintza hauek garatuz:

- a) Eskualdeko Etxebizitza Bulegoa egitea eta abian jartzea, jendearentzako arreta ibiltariarekin. Bulego horrek Hitzarmen honen I. ERANSKINEAN aurreikusitako zerbitzuak emango ditu etxebizitzaren eta hiri-agendaren arloan.
- b) Jarraipena eta ebaluazioa egitea, Etxebizitzaren Eskualdeko Mahaian ezarritako adierazleen arabera.
- c) Udalerriekin koordinatzea.
- d) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketetarako langile egokiak jartzea, dedikazioari, esperientziari eta prestakuntzari dagokienez.
- e) Proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren laguntza-zerbitzuak ematea. Instalazioen erabilera-lagapena eta mantenua udal sinatzaileen kontura izango da.
- f) Dauden etxebizitza-eragileen eta gaian eragina duten eskumenak eta eginkizunak dituzten erakunde publikoen parte-hartze eraginkorra bermatzea, Hitzarmen honetan aurreikusitako Eskualdeko Etxebizitza Mahaian zehazten diren formulen bidez.
- g) Eskualdeko Etxebizitza Bulegoaren diseinua udal bakoitzera egokitzea.

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 5a 10tik



- h) Eskualdeko Etxebizitza Mahaiaren idazkaritza teknikoaz arduratzea.
- i) Eragileekin eta parte-hartzaileekin harreman eraginkorrak sustatzea, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.
- j) Hirugarren erakundeekin hitzarmenak edo akordioak sinatzea, hitzarmen honetan aurreikusitako helburu komunerako beharrezkoak direnean.
- k) Eskualdeko Etxebizitza Mahaiak zehazten duen beste edozein jarduera.

LAUGARRENA. JARDUEREN KRONOGRAMA

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute proiektua behar bezala burutzeko, Hitzarmen honen bederatzigarren estipulazioan arautzen den Eskualdeko Etxebizitza Mahaiaren adosten den kronogramaren arabera.

BOSGARRENA. FINANTZAKETA

Sinatzen duten udalerriek proiektu hau gauzatzeko behar diren funtsak bermatu beharko dizkiote AGENTZIARI, eta Urteko Kudeaketa Planaren bidez, proiektuaren finantzaketa osoa osatzeko behar den zati ekonomikoa jarriko dute, VII. eta VIII. azalpenetan ezarritakoaren arabera.

SEIGARRENA.- PROIEKTUAREN ZATIREN BAT GUZTIZ EDO PARTZIALKI ETETEA

1. Alderdi sinatzaileak lankidetza mantentzen saiatuko dira, nahiz eta sinatzen duten erakunde laguntzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik programatutako ekintzaren bat eten.
2. Kasu horietan, bederatzigarren estipulazioan araututako Etxebizitzaren Eskualdeko Mahaia bilduko da, lankidetza-erregimenaren iraupena bermatzeko hartu beharreko neurriak ebaluatzeko.

ZAZPIGARRENA. ELKARRI INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA

Alderdiek Hitzarmen hau sinatu ondoren gertatzen den eta Hitzarmenaren helburuekin zerikusia duen edozein gertaera edo zirkunstantziaren berri izan beharko dute.

ZORTZIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA

	INPRIMAKIA: IM-S02/2		Berrazt.: 8
	Lankidetza Hitzarmena		Data: 2025/08/04
			Or. 6a 10tik



Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen aplikazio-eremuan eskuratzen dituzten edo lagatzen zaizkien datu pertsonalak tratatzeko, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

BEDERATZIGARRENA. ESKUALDEKO ETXEBIZITZA MAHAIA.

1. Lankidetza Hitzarmen hau behar bezala betetzen dela bermatzeko, alderdi sinatzaileek Eskualdeko Etxebizitza Mahaia abian jartzea adostu dute, jarraipen batzorde gisa jardungo duena. Hitzarmen hau sinatu duten erakundeetako bina ordezkari osatuko dute Eskualdeko Etxebizitza Mahaia. Pertsonetako bat ordezkari politikoa izango da, eta beste bat ordezkari teknikoa, AGENTZIA izan ezik, teknikari bakarra jarriko baitu.

2. Mahaiaren eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

- Hala badagokio, Mahaiaren funtzionamendu-araubidea onartzea.
- Alderdiek hitzarmen honen arabera hartutako konpromisoak definitzea.
- Alde guztien jarduerak koordinatzea.
- AGENTZIAk erakunde publiko eskudunekin sinatzen dituen akordioak edo hitzarmenak baliozkotzea.
- Hitzarmen honetatik eratorritako jardueri buruzko informazioa partekatzea.
- Hitzarmenaren betearazpenaren aldizkako jarraipena egitea.
- Alderdi bakoitzak Hitzarmen hau zenbateraino betetzen duen ebaluatzea eta horren inguruan sor daitezkeen zailtasunak edo gabeziak konpontzeko neurri egokiak ezartzea.
- Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzean sortutako gorabeherak jakinaraztea.
- Interpretazio-zalantzak argitzea.
- Antzeko beste edozein funtzio

ESKU74daa1d2-256b-4f78-89a9-600d674ad74c

Lankidetza Hitzarmena



3. Hitzarmena sinatzen duten alderdietako edozeinek egoki irizten dion guztietan bilduko da Mahaia, eta Idazkaritzari jakinaraziko dio.
4. Bilkuretara adituak gonbidatu ahal izango dira hitzarmenaren helburu zehatzei buruz hitz egiteko.
5. Mahaiaren Idazkaritza Teknikoa AGENTZIA ordezkatzeko duen teknikariak beteko du.
6. Mahaiaren bilkuren aktak egingo dira.

HAMARGARRENA. BERRITZEA ETA ALDATZEA

1. Lankidetza-hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek aitortutako eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkie hirugarren erakundeei laga, beste alderdi sinatzaileen baimenik gabe.
2. Hitzarmen honen aldaketak ez du baliorik izango alderdi sinatzaile guztiek sinatzen ez badute.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENA EZ BETETZEA

1. Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoren bat betetzen ez badu, bete duten alderdiek ahalmena izango dute konpromiso hori bete dadin eskatzeko edo, hala badagokio, lankidetza-hitzarmena suntsiarazteko.
2. Nolanahi ere, ez-betetzea Eskualdeko Etxebizitza Mahaiak aztertu beharko du lehenik eta behin.
3. Ez-betetzeren bat gertatuz gero, alderdi bakoitza behartuta dago, hala badagokio, gainerako alderdi sinatzaileei eragindako kalteak konpontzera.

HAMABIGARRENA. AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.
- b) Bere gain hartutako betebeharren ez-betetze larria.
- c) Alderdi sinatzaileen akordioa.
- d) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 8a 10tik



HAMAHIRUGARRENA. ALDERDIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK

1. Alderdien artean egiten diren komunikazioak posta elektronikoz eta telefonoz egin ahal izango dira, eta honako helbide elektroniko eta telefono hauetara bidali beharko dira:

- ERRENTERIAKO UDALA:
- LEZOKO UDALA:
- OIARTZUNGO UDALA:
- PASAIAKO UDALA:
- OARSOALDEA S.A.:

2. Alderdi sinatzaileek posta elektronikoz jakinarazi beharko diete gainerako alderdi sinatzaileei helbide elektronikoan eta telefono zenbakian egindako edozein aldaketa.

HAMALAUGARRENA. LANKIDETZAREN ZABALKUNDEA

Alderdi sinatzaileek berriazko ahalmena dute ondoren lankidetza-hitzarmen honen sinaduraren berri emateko.

HAMABOST. EZTABAIDAK EBAZTEA

Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketak, ondorioek eta abarrek sor ditzaketen auziak, lehenik eta behin, Hitzarmenaren . Jarraipen Batzordearen eginkizunak betetzen dituen Eskualdeko Etxebizitza Mahaian ebaztiko dira. Adostasunik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da edozein eztabaidatarako eskuduna.

HAMASEIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Lankidetza Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta indarrean dagoen Legean xedatutakoaren arabera arautzen da, bereziki 40/2015 Legean eta, hizpaketa hauetan xedatzen ez denari dagokionez, Kode Zibilean betebeharrei buruz ezarritako xedapenen arabera.

Lankidetza Hitzarmena



Eta jasota gera dadin eta ados daudela adierazteko, aldeek elektronikoki sinatzen dute.

Aizpea Otaegi Mitxelena Fundazioa
ERRETERIAKO UDALA

Sin.: Mikel Arruti Salaberria
LEZOKO UDALA

Sin.: Joana Mendiburu Garaiar
OIARTZUNGO UDALA.

Sin.: Teo Alberro Bilbao
PASAIKO UDALA

Sin.: Fernando Nebreda Díaz de Espada
OARSOALDEA S.A.



INPRIMAKIA: IM-S02/2

Berrazt.: 8

Lankidetza Hitzarmena

Data: 2025/08/04

Or. 10a 10tik



ERANSKINA.- ESKUALDEKO ETXEBIZITZA AGENTZIAREN ZERBITZUAK

ETXEBIZITZA BULEGOAREN EGINKIZUNAK ETA HIRI AGENDA

Etxebizitza-bulegoan eta hiri-agendan egingo diren eginkizunen helburu nagusia honako hau izango da: herritarrek etxebizitza duin bat izateko, oinarrizko zerbitzuak eta sozialki balorizatutako zerbitzuak dituen auzo osasuntsu bat izateko, udalerri osoarekin artikulatzeko eta udalerri barruko mugikortasuna izateko, ekintzailetzarako, enplegurako eta prestakuntzarako aukerak izateko, eta biztanle guztien gizarteratze, parte-hartze eta berdintasun politiko eta juridikorako eskubidea sustatzea.

Zehazki, funtzioak bi multzotan bereizten dira:

1. Herritarrei zerbitzua ematera bideratutako funtzioak:
 - a. Herritarrei zuzendutako etxebizitza-bulego bat diseinatzea eta abian jartzea, etxebizitzaren arloan dauden programa, laguntza eta gestioei buruzko informazioa emateko eta horiek kudeatzeko. Funtzio hau gauzatzeko, kontuan hartuko da etxebizitzaren arloan leihatila bakarrak duen garrantzia, eta aurreikusten da informazioa ematea eta kudeatzea, bai udalen eta udalaz gaindiko laguntzen inguruan (Alokabiderekin lankidetzan, adibidez), bai informazioa ematea tentsionatutako eremuaren izendapenari buruz, etxebizitza turistikoen erregulazioari buruz, etxebizitza publikoak eta pribatuak eraikitzeke sustapenei buruz, etab.
 - b. Etxebizitza-bulegoaren zerbitzua gauzatzea, haren diseinuan ezarritako baldintzen eta edukiaren arabera.
 - c. Etxebizitza bulegoaren ebaluazioa egitea, haren diseinuan ezarritako adierazleen arabera.
 2. Etxebizitza izateko eskubidea eta espazio publikoak eta oinarrizko ekipamenduak sustatzeko proiektuak kudeatu, koordinatu eta gauzatzeko eginkizunak, hau da, pertsona guztien bizi-zikloaren une bakoitzerako etxebizitza duina, eskuragarria eta irisgarria izateko eskubidea gauzatzen laguntzea. Horretarako, proiektu horiek honako gai hauetan sartuko dira:
 - a. Eraikinak eta etxebizitzak berroneratzea eta birgaitzea
 - b. Oinarrizko ekipamenduak
 - c. Ingurune eta espazio publikoak
- Bigarren atal honen edukia, hasiera batean, Oarsoaldea bidean proiektuarekin garatuko da, Europako FEDER funtsekin finantzatuta.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026ZHIT0005-Hitzarmena_etxeb_eus/Convenio_viv_eus ()